

## ***Basarri. Zarauzko berriak*** **1931 – 1936**

Zarautzen, 2013ko abenduaren 17an  
Joxemari Iriondo

Arratsalde on

Duela hamabost-hogei egun, oraindik ere zabalik dagoen **Basarriren erakusketa** hau ideki zen Zarauzko Sanz-enea kultur etxea; eta Euskaltzaindiak bere bilera egin zuen Herriko Etxean, Zarauzko errizildarraren ohorez. Gaur, 2013ko abenduaren 17an, Basarriren jaiotzaren mendeurrenako azken ekitaldietako bat izango da, *Auspoa* taldeak **BASARRIREN IDAZLANAK 1931 – 1943** bildumaren aurkezpena hurrengo udaberri-udan egiteko utzi badu ere.

Lehenago ere esandakoak berrituz, azaroren 27an bete ziren ehun urte Inazio Eizmendi Manterola *Basarri* bertsolari eta idazlea jaio zela Errezilgo Beama auzoko Granada baserrian –ez Granada-erreka baserrian, askotan agertu den bezala–.

Zazpi urte zituen ezkerro, Zarautzen bizi izan zen; eta hementxe hil ere, 1999ko azaroaren lehenetan. Errezildar-zarauztar sentitu zen beti Basarri: –“Zer nai dezu esatea? –esan zidan–. Zazpi urte nituan ezkerro emen bizi naiz, eta ni zarauztarra sentitu izan naiz bizi guztian”.

Bere jaiotzako mendeurrenean *Auspoa* sailak/taldeak omen eta ohore egin nahi dio bertsolaritza eta euskeraren alde hainbat lan egin zuenari, idatzizko eta ahozko euskeraren sailean merezimendu ona baitu, gure ustez.

### **Basarri. Zarauzko berriak, 1931-1936**

Garai horretan Basarrik idatzitako kronika-bilduma da liburu hontan jasotzen dena (*Auspoa* 327). Zarauzko berriak, beraz.

Kronika ximpleak dira, xume-xumeak, baina interesgarriak, herrietako berriak gehienetan izan ohi diren bezala. Gaur egunean ere, egunkariak hartu eta irakurtzeko ohitura duen nork ez die begiratu bat ematen norbere herriko albisteei?. Seguruenik ere, lehenengo irakurtzen den saila izango da hau, nahiz eta “politika handiaren” zale bihurtu geran askotan.

Albiste-bilduma hau, garai hartako bi egunkaritan osatu dugu: *Euzkadi* egunkaria batetik, eta *El Día* egunkaria bestetik. Biak egunkari abertzaleak, biak oso euskaltzaleak, baina bakoitzak bere bidea landu zuen.

*Euzkadi*-k bere "Errijetatik" sailean eman ohi zituen herrietako albisteak; eta Basarrik idatzi edo beste nornahik idatzi, beti ere bizkaieraren ukitua ematen zion Estepan Urkiaga *Lauaxeta* handiak, bera baitzen zuzentzaile: Oldozten, lez, gura, ixan, gayakeze, aspaldion, oneik... Bizkaiera erraz eta argiaren ukitua zuten Basarriren lanek.

*El Dia* egunkariko "Euskal Orria" sailean ematen zirenak, berriz, gipuzkera osatuaren ukitua zuten. Ander Arzelus *Luzear* zen orriaren arduradun, eta honek bere erara zuzentzen zituen herrietatik heltzen zitzaizkion albisteak. Baita Basarrirenak ere.

Kronika hauetako asko bi egunkarietan argitara eman ziren, egun batzuk gorabehera. Eta, nahiz eta egile berarenak izan, bakoitzak bere airea, bere zantzua izaten zuen. Kronika berdinak, ez dira beti berdinak. Hitzak aldatzen zizkieten, laburtu ere bai kasuren batzuetan. Hala ere, kronika ber-berak dira, liburua hartu eta begiratzean ikusiko duzuenek.

### **Berri-emaile gaztea**

1931ko azaroaren 11an argitaratu zuen Basarrik bere lehenengo kronikatxoa *Euzkadi*-ko "Errijetatik" sailean –Egun berean argitara eman zizkieten "Nere arrebatxubari" izenez idatzitako bertsoak ere (ik. Basarri II. Jarritako bertso asko. Auspoa 319–). Basarrik 17 urte zituen garai hartan.

Kronika horretan, Zarauzko berriak kontatu zituen, modu xinplean eta sakonkerietan ibili gabe, herrietako kroniken legeetan. Tartean, horietako batzuk irakurriko dituzte Euskaltzaindiko Herri Literatura saileko gure lankideek:

Zarautz

#### **Gudari**

Amilibiatar Peli, Arrietatar Maren eta Muruatar Juste mutil zintzuak. Osasun onarekin eta orain baxen euzkeldun lenbailen atzera biurtia opa diegue.

#### **Izpar beltza**

Gaxoaldi luze baten ondoren il da Urbietatar Koldobika, ta Martineztar Paustin be bai. Goyan begoz. Sendikuai lagun gayakeze atsekabian. Zuk, irakurle, otoi bat ildakuai.

#### **Baserritarrak**

Aspaldiyon oneik lana ugari dute: sagar-batzia dala, artuak etxeratzia eta abar. Jaungoikuari eskerrak lanerako eguraldiyak ere ederrak dituzte.

#### **Perratzalle berriya**

Il zanaren tokirako etorrita, getariar abertzale jator bat degu emen gere artian. Ongi etorriya, ta baserritarren esanai poliki erantzunagaz zintzo-zintzo jarraitu, ba, aurrera.

*Euzkadi*, 1931-11-11

Bestalde, ikusten zuen *El Dia*-ko “Euskal Orrian” ere herrietako albisteak argitaratzen zituztela, eta Ander Arzelus *Luzear* jaunari bidali zion bere albistee sorta Basarrik, 1931ko abenduaren 13an, *Zarauzko berriak* liburuska honetan ikusiko duzuenez. Eta ongi etorri gozoa egin zion Luzear-ek.

Lehenengoa San Martin egunez, ikusten duzuenez; eta *El Dia*-koa, Santa Lutzia egunez –hala ere, ez dugu pentsatzen santuek zerikusirik izango zutenik Basarriren kroniketan, nahiz eta “euskaldun fededun” ikurra hezurretaraino sartua zuen–:

#### **“Luzear” zuzendari jaunari**

Aspalditik nere gogo zeguen bezela, lenengo aldiz nere lumatxuba artu dut gure begiko *EL DIA* izparringi maite onetara idazteko. Nere txirotasuna ondo ezagutzen det, baña ikusirik erri ontako EUZKO idazleak ixildu dirala, eziñ eramanik nago eta neronek eman nai diot lanari. Itxaropen osua daukat, “Luzear”, toki piska bat zuzenduko dirazula, askoren biarrik ezta izango-ta.

#### **Barbara Deuna**

Urtero bezela aurten ere egunari dagokion dizdiratasunez ospatu da. Goizetik askoren deiari erantzunez poz biriak betian igaro zan jendetza aundia, goiko gañera bertan jaupa entzuteko.

Arratsadeko pezta beti bezela guziz polita izan zan.

#### **Eriotz samiña**

Gaixo aldi luze baten ondoren il da Beristaintar Primo mutil gaztea. Goyan bego. Aiñ atsegiña eta ezaguna izanik errian, bere agurtza eta otoitzetara ozte aundia bildu zan.

Laguntzen diogu atzekabean bere sendikoai eta irakurle, aita gure bat bere gogo alde.

#### **Emakume Abertzale Batza**

Gutziz gogotsu alegintzen dira aspaldi onetan Zarautzko emakumeak. Beren bazkun ederrak laixter atiak irikiko dituan soñua dago. Aurrera bide ortatik.

#### **Antzeslariak**

Euzko Etxeko antzeslariak beren ikaskizunetan asi dira. Entzun degunez illaren ogeian izango dute antzerki jaia emakumien areto ederrian, eta lenengua nola duten, asiera on bat izan dedilla. Egun berian izlarien bat izango dan susmua badago. Urrenguan emango det guztien berri eta onenbestekiñ bukatzera nua.

*El Dia*, 1931.12.13

Asiera polita, “Basarri”, jarrai ortik. L.

## **Zarautz**

Nere bigarren idazkiaren asiera izan bedi Euskal Orri onetako zuzendari dan “Luzear” jaunari eskerrik sutsuenaz ordaintzeko. Eskerrak bai zuri, nere txirotasuna ondo ezagutu arren, idazlerik jakintsuen eta azkarrenai ainbat toki egin dirazulako. Ziur egon bada, irakurle, aldedana egiñez zintzo jarraituko dedala.

### **Itzaldi aberkoia**

Iragarrita zeguan bezela, emakumien bazkun edo aretoaren zabalkundea zalata, bere itzaldia egitera etorri zitzaigun, idazle goien goienekua dan Ariztimuñotar Joseba ”J. Aitzol” izen ordainagaz ezagutzen dan jaun agurgarria. Ixillik egoteko askoren antzera nere gogua ere ezta egiten eta orgatik oldoztu det zerbait idaztea.

Barkatu, irakurle, ni ez naiz diña jai aldi orren berri zuzen emateko, baña nere oker eta guzi zerbait aditzera eman gabe egoterik ez derizkiot.

Arratzaldeko laurak dira eta elur bustiak eraso dio. Zigordi kalea betean emakume eta gizonezko, olatu batez sartzen dira bazkun berriko atetan eta gure gogua zan bezela, alako batean sartu gera barrena. An ikusten degu idazle beziñ izlari sutsu eta bikaña dan Joseba azkarra; besuak zabaldua dei dagie Zarautzko emakume eta gizonezkoai, esanez zer laguntza egiñ biar diogun lanik gabe edo ogirik gabe arkitzen diran euzko seme txiroai. Argi eta garbi adierazten digu zer biarrekua dan gaur alkartasun eder onetan bazkidezteza bera indartu eta sendotzera. Bertako txalo beroak galerazten diote izlariari aurrera jarraitzea. Gure araudiatzaz mintzatzen da, eta esaten digu gura ez izan arren pixka bat izanda ere artu egiñ biar degula. Jaungoikuan adiskidien berri garbi ematen digu, eta beste gauza asko olaxe.

### **Argiaren Egutegia**

Egutegi au eskutan artzen dedanian nere kolkorako esan izan det: “Urte bat geiago oraiñ ere bizkarrian”. Baña pixka banaka bere orritxoak zabalduaz eta gogo onez irakurriaz, beriala urtiak aztutzen dira. Ura gauzaren edertasuna! Ango idazki eta edesti, ango olerti eta gañuntzeko irakurgai gozo eta parregarriak! Laurleko bat gora bera, norik utzi erosi gabe?

Irakurri bada Argiaren Egutegia.

### **Naste Borraste**

Lengo egunetan esaten genduan bezela, larunbat arratsian bere agertaldia egiñ zigun gazte talde bikaiñ eta kementsuak. Denbora ere alakua egokitu zan eta sarrera aundirik etzan izandu. Baña bai ikusgarri ederra eta gogozkua izan zala uraxe. Entzun genduan eresi eta abesti ederrik.

Baita gure margolari ospatsua dan Mujika aundiaren ama garbiro azaltzen zan bertako margo eder eta apañetan.

Zorionik sutsuenak irakasle diran eta gañuntzekoi antzezle guztiari.

### **Eusko langilleak**

Eguardiko amaika terditan, otzari aldegiñ naita sartu gera azoka zarrarian eta beriala ikusten degu errederiar eletari sutsua dan Lasa jauna altxatzen dala guztiori itza zuzentzeko. Egi mardul eta sakonak esan zizkigun. Zarautz’en komeni bezelakuak nere ustez. Entzule guziok arretaz egondu giñan eta garbiro ikusi genduan atzeritarrak zer asmo artu dituzten gu menderatzeko, eta guk zer biretatik jo biar degun. Ondoren Pasai Elkarteko Lendakari dan Jauregitar Errapel mintzatu zan. Beste gauzekiñ batian garbi esan zigun Pasaia’n gertatu dana.

Oso txalotuak izan ziran bi izlariak.

### **Laborde abeslaria**

Edergarritzko itzaldiaren ondoren jaiki da abeslarien buru dan Laborde aundia. Loreskiñ edo pianoaren laguntza egiten dio abesten. Nere belarriak ederki gortuak gelditu zirala, urruti xamar banitzan ere. Ori dek eztarriaren edertasuna!

### **Naskaldia**

Eguarriak aita eta amaren ondoan igarotzera, Ferroltik etorri dira Gesalagatar Eleuterio eta Amutxategitar Manu gudari zintzoak. Igandean agurtu genduan Labaiantar Andoni idazle ospetsua.

### **Antzerki jaia**

Lenengo aldiz beren agertaldia egin ziguten Antzokiko antzeslariak aretoa bete bete notifizez zan. Algara eta parra izan zan ugari, izan ere ura da lana egitia. Aurrera gazte bikañak!

–*EL DIA*’ko idazle ta irakurle guztiai Eguarri zorionsuak igarotzea opa dizutet, Euzkal Orri onetako zuzendari “Luzear” jaunari batezere.

Berdin zuri ere “Basarri” ta ez ontan gelditu, e? Jarrai, jarrai! –L.

*El Dia*, 1931-12-25

### **Eizmendi**

Hasi zen ezkerro *Basarri* goitizena erabili zuen beti; baina bada kronika bat EIZMENDI izenez sinatu zuena *Euzkadi*-n. Argi dago bere idazlana dela, eta hala markatuta dago. Deun Agate egunaz ari da, hain zuen.

Zarautz

#### **Deun Agate**

Poztasun eta alaitasun berdin gabeaz, nere gelara jo ta asi naiz gogotsu zerbait idatz nairik. Badakit diña ez naizela egunari dagokion aunditasuna iñongo izparringitara azaltzeko; baña dakidan ainbestekiñ alegindu nai nuke.

Agate Deuna! Antxiñako euzkotarren poza ta alaitasuna. Gure osaben oitura garbia. Oitura zarrak, euzko oiturak beintzat aspaldi onetan berako aundia zemakiten, ondatzen ari ziran.

Aste bete bakarra izanik azkatasun piska bat artu genduala... ez al da poztekua nabaitzen degun aldakuntza? Euzko oitura zarrak berri taldi gogorra dute, euzko mintzoa edo izkuntza zabaldu, eta edertzen arida, euzko irakasleak ugaltu dira, euzko ikastolak ikusten ditugu, euzko ikasleak geitzen dijuaz, eta orrelaxe euzko izaera zarra berpizten arida.

Gure osaben jarraitzalle izan nai degu, eta berak zuten biziari jarraitu nai diogu guk ere illoba zintzoak bezela. Oitura zar oietako bat, aitatzen dedana da: Agate Deuna!

Gau illunian batzuk mendi gañeratuta, ballara batetik bestera basarri ate guztitan abestaldi gozuak egiñez, euzko irrintzi alaiak, lo zorrotik esnatzen dute euzko sendi paketsua, eta ate ondoko bertsolariari arreta on bat jarriak, artzen dituzten gorantzan truke, eskutan damakite arrautza pilloa edo bestela txindia, egin duten lana ordaintzeko asmoz.

Eta oriek ola diran bitartean, Zarautzko kaletan ziar an dabil gazte talde sutu eta aberkoia. Euzko eresi apañez moldatutako abots zoragarriaz, ate ondolik euzko sendi maitekorra laztandu eta goitzen dute; ondoren irabazitako sariari eskuak luzatuaz.

Goguangerria benetan zarautzarrentzako aitatu dodan egun zoragarri ori. Zarautzko gaztediak garbi erakutsi du aberrianganako maitetasuna, oitura zarren ganako zaletasun bizia, eta gure aitonak ziran bezela aske izateko dear egitendu, itxas ertzian abertzaletasuna zabaltzen eten gabe ari dan erri polit onek.

Gora antxiñako oiturak!

EIZMENDI

*Euzkadi*, 1932-02-07

Hamazazpi-hemezortzi urte zituela hasi, eta 1970eko hamarraldiaren azken aldera arte, ehunka saiotan kantatu zuen, herrietako festa eta jaialdietan, plaza, areto eta irratietan. Inoiz aitortu zigunez, Txirrita handiarekin kantatu zuen inoiz. Txapel eta Zepairekin, askotan. Mitxelena, Xalbador, Mattin, Lasarte, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki, Azpillaga, Lopategi, eta garai hartako bertsolari guztiekin ere kantatu zuen 50, 60 eta 70eko hamarraldietan. Baina, batez ere, Uztapide izan zuen bere bertso-lagunik parekoena, 1945ean hasita aurrera. Ondo baino hobeto konpontzen ziren biak, eta batek bestea edertu eta osatu ohi zuten plazan.

1980an egindako elkarrizketa batean kontatu zigunez “ba zan or Gernika alde ortan *Urretxindorra* esaten zioten bertsolari xuxen bat, Kepa Enbeita izenez. Iru-lau aldiz kantatu nuen arekin ere, Euzko Alderdi Jeltzalearen mitinetan-eta.

### **Basarri kazetaria**

Bertsolari ez ezik, idazlea eta kazetaria ere bazen Basarri, hirurogeita lau-bost urte luzez. Irratietako grabazioei dagokionez, Euskadi Irratian 1980ko hamarraldian egindako saio batzuk gorde dira, baina ez besterik. Hala ere, egunkarietan argitara eman zituenak hortxe daude –hitzak aizeak eramaten omen ditu, eta idatzitakoak gelditzen. A zer nolako belarrondokoa urteetan hitzezko hedabideetan ibili geranontzat!–.

Ez dakit gaur eguneko jende gazteari zer esango dioten kronikatxo hauek, baina jende adintsuarentzat –“jende heldua” esaten dute orain– interesgarri direla uste dugu. Eta, batez ere, garai bateko herriko historia txikien lekuko onak dira. Herrian zegoen giroa, egiten ziren antzerki eta jaialdiak, hitzaldiak, heriotzak, ezkontzak... Herriko istorio txikiak, esan bezala.

Sartu ditugun argazki bakarretan berehala ikusiko duzue Zarautz ez zela oraingo Zarautz, zerbait baino gehiago aldatu dela, itxurari dagokionez behintzat. Muin-muinean, ordea, lehengotasunetik ere izango du zerbait, besteak beste, hizkuntza, euskara, nahiz eta erdarak geroz eta sail haundiagoak hartu dituen hemen ere.

### **Irrati gizona**

Irratiko lanari dagokinez, astean ordubeteko irratsaioa euskaraz egiten asi zirenean Zubimendi eta Luzear, 1932an, behin baino gehiagotan eraman zuten irratera Zarauzko taldearekin batean, bertsoak kantatu edo hitzaldiren bat egin zezan irratsaioa bete eta gozatzeko.

Bestalde, 1949ko udazkenean hasi ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, Basarri, Jose Artetxe, Beorlegi, Maria Dolores Agirre, Milagros Bidegain eta talde bat irratsaioak egiten astero. Hitz egin eta bertsoak kantatu ohi zituen Basarrik. Zazpi-zortzio urte iraun zuen halaxe irratsaio hark.

1957an berriro hasi ziren lanean, Donostiako *La Voz de Guipuzcoa* irratian. Basarri bera, Maria Dolores Agirre, Manu Oñatibia eta Enrike Zurutuza albaiteroak, Jose Mari Etxebeste eta abar bildu ziren. Aldi hartako lehenengo irratsaioa 1957ko irailaren 13an eman zuten, eta urteetan iraun zuen.

Irratiko *Nere Bordatxotik* atalean kontakizun eta albisteak eman ohi zituen, eta azkenean bertso bat edo bi kantatu, gai bakoitzari bere moralina eranstuz.

### **Basarri Trabajadoreetan**

Aspaldi idatzita dago, baina jende gutxi ezagutzen du Basarri. Gehienak esango dute bertsolaria izan zela, edo herri kirolen berri-emailea. Zerbait gehiago ere izan zen ordea Iñaki Eizmendi.

Ertzaina izan zen, herri-zaina; eta gudaria. 1937ko udan hanka egin behar izan zuen, diktadorearen indarrek Bilbo hartu zutenean. Landetako pinudietan basomutil ibili zen 1937 – 1940an.

Askotan inguratzen zen Bidasoa mugara, hango giroa ikusi nahita edo. Baina batez ere, etxeok, senideak, lagunak, denak etxera etortzeko eskatzen zioten. “Gure ama gaixoa etxera etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan beti, gauzak konpondu zirala-ta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan”. Horixe uste nunbait ama alargun gaixoak, eta horrela nahi semeak ere.

1940ko urrian hil edo bizi arriskatu ziren Irun-Hendaiako muga pasatu eta herrirantz egiteko. Baina amaren ametsak eta semearen usteak, denak ustel gertatu. Hendaiako zubian bertan hartu eta *trabajadoretara* eraman zituzten. Adibidea hementxe dago, Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an ondutako hamahiru bertsoa sorta batean:

Oraintxen dala sei illabete etorri giñan Prantzitik,  
guraso maite biotz biguñak deika baigiñun etxetik.  
Gure kabiak urre genitun guk Endaiako zubitik...  
Irunen zegon sare zabalak artu ginduzen erditik!

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik Bejarra,  
bagoi zarretan, txerrien gisan, etzan pasio ederra!  
Erri ontako gure izakera daukat agertu bearra:  
gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat bakarra.

Halaxe joan zitzaizkion urteak. Eta 1943ko martxoaren 4an bere lagun Tomax Uriarte lagunari bidali zion gutunean hola dio:

Aztu eziñeko Tomax maitea: Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñeko baten ondoren datozkidan burutapenak. Atzo ere euri eguna genduan eta gure aterpean kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak.

Bazuen ordea bertsoak/olerkiak idazteko hainbat asti eta umore. Gutun horrekin batera zortzi ahapaldiko sorta bidali baitzion, “esateko” direla adieraziz:

Bijoaz beingoz laino zakarrok, ta betor zero argia!  
Ega bitez euskaldun usoñoak. Azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua! Mintza zaite gaurkoan.  
Adierazi mingotzaldiak zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak, dan danak zuretzat zeuden.  
Ainbat zigor artuta, eztakit bizirik nola zauden!

### **Etxera!**

1943ko San Pelaio festetarako itzuli zen bere Zarautz maitera, zazpi urte luzeko kanpoan eginda. 1937ko udan herritik aldegin (iparraldera), eta 1943ko ekainaren 26an heldu Zarautza, Afrikatik.

Ofizioz eta afizioz berriz ere kazetari izaten jarraitu zuen. 1946an hasi zen, herriko berriemaile Frantzisko Juaristi *Pipe-kalek* eskatuta; eta 1994an argitaratu zuen azkenengo, *El Diario Vasco*-n.

Badakizue, orain txapeldun berria dugu bertsolarietan; baina 1962-XII-30ean, beraxe izan zen Euskal Herriko bertsolarien txapelduna Euskaltzaindiak antolatu ohi zuen Txapelketa nagusian. Eta A. Irigoyenek, “hiru bertsotan kontatu behar dezu zure bizitza” agindu zionean, honela kantatu zuen:

Goguan artua det, ai, zer esan duan.  
Lan pixkat egiten det periodikua,  
berriketaldi batzuk gero radiuan.  
Familiko goxoan andrian onduan,  
antxen bizitzen nazu al dedan moduan.

Erriz erri bertsotan ibili biarrak,  
an azaltzen ditugu dauzkagun indarrak.  
Gozatzen dira gazte eta berdin zarrak.  
Eman dizkigulako ain doai ederrak,  
Jaungoiko altsua, nik biotzez eskerrak.

Irugarrena ere kantako det garaiz,  
tristurarikan gabe txit arpegi alaiz.  
Guretzat iñun ez da biar ainbeste eiz,  
milla duroren jabe izan ez arren iñoiz,  
daukadan pixkarekin gustora bizi naiz  
(Auspoa, 22. 147 or.)



## Aldaketa batzuk

*Auspoa* liburuan honetan **Zarauzko berriak** irakurtzean, aurkituko duzue aldaketa txikiren bat baino gehiago. Izan ere, Basarriren idazlan ber-berak ez daude beti berdin zuzenduta *Euzkadi-n* (Lauaxeta), eta *El Dia-n* (Luzear). Bistan denez, zuzentzaile bakoitzak bere legeak zituen.

Garai hartako lege edo ohiturari –edo lege jakinik ezari– jarraituz erabilitako dozenaka apostrofe (’), kakotx, koma eta abar kendu/aldatu egin dugu liburuan, hala nola: *Eizmendi’tar Iñaki* = *Eizmenditar Iñaki*; *Ayerdi’tar Mikel* = *Ayerditar Mikel*; *Zarautz’en–Zarautz’tik–Zarautz’ko* = *Zarautzen–Zarauztik–Zarauzko*; *Lekeitio’tik* = *Lekeitiotik*; *Loyola’n–Loyola’tik* = *Loiolan–Loiolatik...* eta abar eginez. Hau da, dozenaka apostrofe kendu dugu, beti hobe beharrez.

–*S* eta *Z*: *Euzkera–eusker*a, *euzkel–euzkal*, *azkatasuna–askatasuna* eta abar, gutxienez ere bi eratara erabili zituzten aipatu argitalpenetan. Guk, *euskera*, *euskal*, *askatasuna* bihurtu/bateratu ditugu. Eta *Euzko–Eusko* hitzetan, berriz, *Euzko* jarri dugu, noizbehinka bakarrik erabiltzen zuten erdiko marratxoa kenduta

–*Y* grekoa: *Aberkoya–aberkoia*; *egiya–egia*; *erriya–erria*; *eztaiyetan–eztaietan*; *geiyen–geien*; *geiyago–geiago*; *geyen–geiyenera–geyenera–geienera*; *itxusiya–itxusia*, *etsaiya–etsaia*, *Anaya–anaia*, *jaiya–jaya–jaia*; *aiyek–oyek–oriyek–oryek–oiyek–oriek–oiek*; *garaiyan–garayan* eta *garaian*; *byotzetik–biyotzetik–biotzetik*; *diyamona–biyamona–biamuna*; *diyakanpo*; *iyo–igo*; *iya*; *piyo...* Holakoetan, *y* kendu eta *i* ezarri dugu.

–*Antzslari–antzezlari*, *antzesten–antzezten*, bi modutan ageri dira *Euzkadi*, *Argia* eta *El Dia-n*, gehienetan *antzezlari*, *antzezten* erabiliz. Azkenengo hauek hautatu ditugu.

–Itxuraz lege jakinik gabe, eta batera nahiz bestera idazten zituen (zuzentzaileek) hitzaren azkenengo *ñ*-ak (*jakiñ*, *alegiñ*, *egiñ*, *miñ*, *laiñ*, *dediñ*, *aiñ*, *oraiñ*, *ordaiñ*, *berdiñ*, *eurakiñ*, *berarekiñ*, *gaiñ*, *irekiñ...*), *n* aldatu/zuzendu ditugu. Alabaina, *jakiña*, *alegiña*, *piña*, *egiña*, *miña*, *eragiña*, *berdiña*, *gaña* errespetatu dira.

–Hala ere, Basarrik maite zituen *yaun, yaunak, yakintza–jakintza, yakin–jakin, yarrai–jarrai, yotzen–jotzen, yoputasuna–joputasuna, yator–jator* eta abar zeuden zeudenean utzi dira. Era berean, *etortzen aal, ezta ikusten aal* eta holakoak ere. *Euzkadi* egunkariko bizkaierazko asko: *Egin biar nebazala, ebalá, topeu neban, errija, urten, esaten dabe, lanean diardabe, or dabiz, ondiño, lez, damubagaz, maitasunagaz...* lehenean utzi dira.

–Badakigu ez zuela maite Basarrik –hola esaten zuen behintzat– dontsuzko *h<sup>a</sup>*. Hala ere, *ahapaldi* eta *ohore* hitzetan *h* erabiltzen zuen beti. Kronika liburu honetan ez dago holakorik, baina hurrengoetan agertuko dira.

Ahal dugun neurrian jatorrizkoa errespetatzen ahalegindu gera, baina jatorrizkoa zein den jakitea zaila da. Ondo pentsatzen jarrita, dena euskara batuan argitaratzea ez zen batere zaila. Aldaketa txikiak behar dira Basarriren idazlanak euskara batuan emateko.

Amaitzeko, aholku bat nahi baduzu, irakur ezazu idazlan bakoitza patxara ederrean, eta esango diguzu *Auspoa*-ren orrietara ekartzea merezi zuen ala ez bilduma honek Basarriren jaiotzako mendeurrenean.

Joxemari Iriondo  
2013ko abendua